

ASTE NAGUSIKO SU ARTIFIZIALEN VI. ARGAZKI LEHIAKETA VI CONCURSO FOTOGRAFICO FUEGOS ARTIFICIALES SEMANA GRANDE

ONARRIAK

PARTE HARTZAILEAK

Adin nagusikoa den edonork lehiaketan parte har dezake. Adin txikikoak diren pertsonak ere, gurasoen edo legezko tutorearen baimena aurkeztuz gero, parte hartzeko aukera izango dute. Parte hartzen duen pertsona orok txapelketaren oinarriak ulertu eta onartu behar ditu.

GAIA

Parte-hartzaileek Aste Nagusian zehar, hau da, 2022ko abuztuaren 13tik 20ra bitartean, Donostiako Su Artifizialei egindako argazkiak bidali behar dituzte Nazioarteko 57. lehiaketan parte hartzeko. Aurkezten diren argazkien artetik egokienak direnak aukeratuko ditu antolakuntzak, horretarako, planteatutako gaiarekiko egokitasuna eta bete beharreko gutxieneko irizpide tekniko batzuk hartuko ditu kontuan.

OBRA

Lehiakide bakoitzak 3 irudi bidal ditzake gehienez ere.

NOLA PARTE HARTU?

Kamera digitalarekin egindako argazkiak aurkeztu behar dira eta baldintza hauek bete behar dituzte:

- Argazkiak JPG fitxategiak izan behar dute.
- Argazkiak bertikalak izan behar dute (100x140cm-ko proportzioan). Alde handienaren tamainak gutxienez 4720 px 300 ppi-koa izan behar du, gainera, RGB kolore espazioa gomendatzen da.
- Ukitu eta aldaketa xumeak besterik ez dira onartuko, hots, kontraste, distira, kolore eta abarren doikuntzak. Ez da inola ere, jatorrizko irudikoak ez diren, edo horiek ezabatzen dituzten elementuak dauzkan irudirik, ezta fotomuntatzerik onartuko ere. Horretarako, epaimahaiak egokitzen jotzen duenean, jatorrizko fitxategia aurkez dadin eskatzeko ahalmena izango du.

IDENTIFIKATZEA ETA BIDALTZEA

Lehiaketa sartu ahal izateko, www.donostiakultura.eus/astenagusia, webgunean sartu eta parte hartzeko formularioa bete behar da. Parte-hartzaileak datu hauek adierazi behar ditu:

- Lehiakidearen izen-abizenak.
- Harremanetan jartzeko posta elektronikoko helbidea.
- Harremanetarako telefono zenbakia.
- Irudiaren izenburua eta Donostiako zein tokitatik aterata dagoen.

Argazkiak *Wetransfer* bidez donostiakofestak@gmail.com helbidera bidali beharko dira.

IRUDIEN ERAKUSKETA



Donostia San Sebastian Festak, parte-hartzaileek aurkeztutako irudien hautapen bat erakusteko eskubidea du. 2023ko Aste Nagusian antolatuko litzateke aipatutako erakusketa.

ONARTZE DATA

2022ko abuztuaren 24ra arte jasoko dira originalak.

EPAIMAHAIA ETA EPAIMAHAIAREN EPAIA

Gipuzkoako Argazkilari Elkarteko kideek osatuko dute epaimahaia.

2022ko irailaren 14an (asteazkena) argazkiak eta irabazleen izenak www.donostiakultura.eus/festak webgunean argitaratuko dira.

Epaimahaiaren ustez ez bada kalitate nahikoa duen lanik aurkeztu, sariak eman gabe geratuko dira. Epaimahaiak kontuan hartuko dituen ebaluazio-irizpideak argazkiaren sormena eta kalitatea izango dira. Epaimahaiak erabakiko ditu irabazleak, eta bere epaia behin betikoa eta apelaezina izango da.

SARIA

Argazki irabazleari 1.000 € emango zaizkio, zergak barne.

IRABAZLEAREN IZENAREN PUBLIZITATE ERABILERA ETA DATUEN BABESA

Donostia San Sebastian *Festak* unitateak saria irabazleari ematearekin batera, irabazlearen berriazko baimena lortuko du bere datu pertsonalak erabiltzeko eta tratatzeko, sustapenaren emaitzaren publizitatea egiteko helburuarekin; horrela, bere izena eta irudia erabili ahal izango ditu eta egileak ez du ordainsaririk edo etekinik lortzeko eskubiderik edukiko. Lehiaketan parte hartzeko klausula hau onartu behar da.

ARGAZKIEN GAINKO ESKUBIDEAK

Donostia San Sebastian *Festak* unitateak eskubidea du (eskubide ez-esklusiboa) aurkeztutako irudiak informazio- eta sustapen-euskarrietan askatasun osoarekin erabiltzeko. Edozein kasutan, irudiak ez zaizkie hirugarreni lagako, egileak espresuki baimentzen duen kasuetan izan ezik. Parte-hartzaileen erantzukizuna da beren lanen gainean hirugarrenek eskubiderik ez edukitzea. Antolatzaileek, beren aldetik, konpromisoa hartu dute irudi bat erabiltzen den bakoitzean egilearen izena adierazteko.